

3/2016 UDALEKO OSOKO BILKURA

2016KO APIRILAREN 25EAN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEORDEA

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Pello Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Idoia Baraizar Otaño

Anoetako udaletxean, 2016ko apirilaren 25ean arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Izaskun Jauregi Saizar Alkateordearen Lehendakarietzapean, eta Idoia Baraibar Otaño andrea, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- 2016KO MARTXOAREN 21EKO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2016ko martxoaren 21eko udal plenoaren bilkuraren akta irakurri eta aho batez onartua izan da.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2016KO MARTXOAREN 16TIK APIRILAREN 15A BITARTE, BIAK BARNE.

2016eko martxoaren 16tik apirilaren 15a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkateorde andreak, udalbatzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- TRENBIDE PASAGUNEAREN PROIEKTUA: MENDIAREN

INDUSKETA BIDEZKO PROPOSAMENA ALDATZEKO ADIF-EN ESKAERARI ERANTZUNA EMATEN DION DEKRETUAREN BERRESPENA

Udalbatzak berresten du 2016ko martxoaren 30eko ondorengo dekretua:

“DEKRETUA

Anoetan, 2016ko martxoaren 30ean.

Anoetako udalerritik igarotzen den PK 601/185 trenbide pasagunea , Madrid/Hendaya Ibilbidekoa, kentzeko proiektuaren idazketa eremuan, ADIF-en proposamena jaso dugu hasierako proiektuaren zati baten aldaketa proposatuz: tunel bat irekitzea proposatzen da, hasierako mendiaren indusketaren ordez.

Udal aparejadorearen txostena, 2016ko martxoaren 10ekoa, aztertu da, honela dio:

“Examinada la propuesta se aprecia en cuanto a su funcionalidad un empeoramiento respecto a los puntos siguientes:

Supondría un claro punto negro en cuanto a la seguridad de los usuarios. 150 m de túnel con una entrada y una salida en el extremo opuesto, facilita cualquier supuesto de delincuencia.

El Ayuntamiento se vería obligado a mantener su iluminación de forma ininterrumpida, incluso con suministros energéticos alternativos para posibles cortes de energía.

En cuanto a los argumentos que se indican sobre el riesgo que supone para la construcción y uso posterior el talud de más de 15 m, efectivamente es así, pero ello deberá contar con unas adecuadas previsiones tanto en el Estudio como en el Plan de Seguridad que se redacten previo al inicio de la obra. Y en cuanto a la seguridad para viandantes tras su finalización, deberán preverse las defensas necesarias para evitar desprendimientos posteriores, como redes o mallas dinámicas si fuera necesario.

Y finalmente el argumento del volumen excesivo de residuos, indicar que la roca es un residuo inerte, la cual puede ser reutilizada insitu o exsitu, bien directamente en su propio estado o mediante un tratamiento de trituración con una planta móvil.

Por ello, considero que se debería continuar con la propuesta inicial de excavación de la totalidad de la ladera, cuya solución se aceptó desde sus primeros planteamientos que iniciaron en el año 2007”.

Hirigintza eta Obra Batzordean aztertu da gaia.

Dagozkidan eskuduntzaz baliatuz

HONAKOA EBATZI DUT:

Lehena: Mendiaren indusketa bidezko hasierako proposamenaren alde egitea, izan ere aipatu irtenbidea onartu bait zen 2007 urtean; tunelaren alternatiba baztertuz, goian aipatutako arrazoiengatik.

Bigarrena: Ebazpen honen berrespena Udalbatzatik pasatzea, honek egingo duen hurrengo bileran.

Honela agindu eta sinatu du Izaskun Jauregi Saizar alkateordeak; eta neuk, idazkariak, fede ematen dut”.

4.- LASARBE ERREPARTZELAZIO PROIEKTUTIK DATORREN LEKUEDER ETXEKO BI BIZILAGUNEI BESTE BIZITOKI BAT EMATEA.

Udalbatzak jakintzat eman du 2016ko apirilaren 25eko ondorengo dekretua:

“DEKRETOA

Anoeta, 2016ko apirilak 25

2011ko urriaren 27ko Alkate dekretu bidez A-14 “Lasarbe” Sektorearen Birpartzelazio Planaren Testu Bategina onartu zen. Bertan, Leku Eder Etxeko 2. eta 3. solairuetako etxebizitzaren legezko okupatzaile gisa aitortu ziren, hurrenez hurren, José Casimiro Sales Alonso jauna eta Begoña Corón Domínguez andrea, baina Udalaren hirigintza-plangintzako xedapenei jarraiki, hura antolamendutik kanpo geratu da, eta beraz, eraitsi egingo da.

Birpartzelazio-proiektu horren bitartez, R.A.B5 lursaileko esleipendunei bertan eraikitzea aurreikusten den eraikinean ostatu ematea egikaritzeko obligazioa ezarri zitzaion.

Higiezinen merkatuaren gaur egungo egoera ikusita, eta aldameneko lursailetan egindako eraikinetan oraindik ere zenbait etxebizitza salgai daudela kontuan hartuta, zaila da eraikin horren eraikuntza-lanak noiz abiaraziko diren auresatea.

Testuinguru horretan, Udalak bi etxebizitza gorde zituen beretzat, RA-C lursailean erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko helburuarekin egindako salmenta-kontratuaren esleipen-prozesuan. Etxebizitza horiek Tolosako M^a Valentina Montero Villar notario anderearen eskuetsitako eskritura bidez eskualdatu zitzaizkion 2014ko abenduaren 19an.

2015eko ekainean, eragindako pertsonen eskaera batzuk aurkeztu zituzten RA-C lursailean Udalaren Babes Ofizialeko etxebizitzak esleitzeko beharrezko izapideak abiarazi zitezen, Birpartzelazio Proiektuan aurreikusitako ordez.

Agintari publikoek beharrezko neurriak sustatu behar dituzte etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legean jasotzen den etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea benetan gauzatu dadin.

Dena den, kasu zehatz honetan, betebeharrak hori betetzeko Udalak babestutako etxebizitzaren prezioa jasoko du Birpartzelazio Proiektuak eragindako pertsonen aitortzen dizkien kalte-ordainen kargura.

Ostatu emateko eskubidea aldatu eta ordezkapen-etxebizitza berrien kobrantza-bermea osatzeko, Birpartzelazio Proiektua aldatu egin behar da erreferentziarako dokumentu gisa. Bertan, eragiketa horiek islatu beharko dira Jabetza Erregistroan.

Dagozkidan eskuduntzak erabiliz, honako hau ebatzi dut:

EBAZPENA

Lehen.- Leku Eder Etxeko 2. eta 3. solairuetako etxebizitzaren okupatzaileei ostatu emateko A-14 "Lasarbeko" Birpartzelazio Proiektuan aldaketa puntualak egiteko espedientea abiaraztea.

Bigarrena.-Udaleko Osoko Bilkurari Dekretu honen berri ematea.

Honela agindu eta sinatu du Izaskun Jauregi Saizar alkateordeak eta neuk idazkariak fede eman".

5.- ALKATEORDEAREN IZENDAPENA UDAL ORDEZKARI BEZALA ERAKUNDE DESERDINETAN.

Izaskun Jauregi alkateorde dagoen hilabete hauetan, udalak parte hartzen duen erakundeetako bileretan, ordezkari bezala izendatua izateko beharra suertatu da.

Hori dela eta, proposatzen da Izaskun Jauregi alkateordea den bitartean ordezkari Pello Estanga Lasa den kasuetan, Izaskun Jauregi izatea Anoetako Udaleko ordezkari ondorengo erakundeetan:

- Mendi Nekazaritza
- Gipuzkoako Ur kontsorzioa
- Tolosaldea Garatzen
- Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea
- Gipuzkoako Baso Elkarte
- Tolosako Hiltegi Mankomunitatea
- Apattaerreka industrigunea
- Euskadiko Udalen Elkarte, EUDEL
- Udalbiltza partzuergoa

Proposamena aho batez onartzen da.

Galde-Erreguen tartearen aurretik, partaideen aldetik aho batez premiatasuna adierazi ondoren, eta udalbatzakide kopuru legalaren gehiengo absolutoaren botu baikorra ordezkatzeko dutela kontutan harturik, ondorengo gaia aztertu da:

6.- EH BILDUK AURKEZTEN DUEN MOZIOA FRACKINGAREN INGURUAN HERRI BORONDATEA DEFENDATZEKO.

Bildu talde politikoko zinegotzia den Aratz Luisa Urkolak ondorengo mozioa irakurri eta partaideek aho batez onatzen eman dute:

“EH Bilduk aurkezten duen mozioa Frackingaren inguruan herri borondatea defendatzeko.

Udalerri honetan ezaguna da frackingaren kontrako jarrera. Jenderteak oso era argian erakutsi du ingurumenerako eta osasunerako arrisku larriak dakartzan eta beharrezkoa den energia aldaketa hipotekatzen duen teknika honen aurkako jarrera. Fracking Ez taldeak bultzatutako Herri Ekimen Legegileak gure udalerrian lortutako babes zabala ere horren beste adierazle argia da.

Hala eta guztiz ere, frackingaren mehatxua ez da inolaz ere gelditu. Herri Ekimen Legegile horren bidez 103.000 biztanle baino gehiagok bultzatutako bidea erantzunda, Legebiltzarrak frackingaren aurkako legea onartu zuen 2015eko ekainaren 30ean.

Espainiako Gobernuak, baina, iragarri berri du lege honen aurkako helegitea aurkeztuko duela Epaitegi Konstituzionalean. Zilegitasunik gabeko jarduneko gobernu batek hartutako erabaki hau ezin da baloratu erabaki juridiko soil gisa, baizik eta herritarren burujabetasunaren aurkako mugimendu bat da.

Are gehiago, ez ohiko baliabideak frackingaren bidez ustiatzeko Espainiako gobernuak dituen asmoak inposatu nahi dizkio bai euskal gizarteari bai eta hego euskal herriko instituzioei, bertan era demokratiko eta herrikoien bidez hartutako erabakiak zapalduta.

Aurreko guztia dela eta, EH Bildu Udal Taldeak Anoetako Udalbatzari mozi hau aurkezten dio, eztabaidatu eta onartu dezan:

1. Anoetako Udalbatzak Espainiako Gobernuari exijitzen dio Eusko Legebiltzarrak frackingaren aurka hartutako legearen kontrako helegitea kendu dezala eta euskal instituzioek demokratikoki hartutako erabaki oro errespetatu ditzala”.

7.- GALDE-ERREGUAK

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, Alkateordeak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hamar direnean; guzti honetaz, nik bitarteko idazkariak, fede ematen dudalarik.